

PRENTSA OHARRA

URDUÑAKO UDALAK ETA JAI BATZORDEAK ATZERATU DITUZTE **2020KO OTXOMAIOKO JAIAK, KAUTELAZKO NEURRI GISA** **KORONAVIRUS PANDEMIAREN AURREAN**

Urduñan, 2020ko apirilaren 2an.- Covid-19 birusaren hedapenak eragindako osasun-larrialdiko egoera dela eta, Urduñako Udalak eta Jai Batzordeak 2020ko Otxomaioko jaiak bertan behera utzi behar izan dituzte kautelaz. Herritarren osasuna eta osotasuna babestea da erabaki horren helburu nagusia eta lehentasunezkoa, kutsatzeko arriskua dela eta.

Udal-gobernuak zein jaien antolakuntza taldeak oso garrantzitsutzat jotzen dute koronabirusaren aurrerapena geldiarazteko osasun-agintariek emandako gomendioak jarraitzea; izan ere, gomendio horiek bateraezinak dira gaur egun jai giro eta jardueren garapenarekin.

Horrenbestez, 2020ko Otxomaioko jaiak ez dira aurreikusitako datan ospatuko, maiatzaren 7tik 17ra. Neurri hori adostu baino lehen, jaien antolaketan eta garapenean parte hartzen duten elkarte, talde eta gizarte eragile gehienek balorazio positiboa jaso du Udalak.

Behin egoera normaltasunera itzulita, jai egitaraua prestatzen parte hartu duten hiriko kultur elkarteekin, kirol taldeekin eta gainerako gizarte eragileekin bilduko da Udala, data berri bat adosteko.

Espainiako Gobernuak alarma egoera apirilaren 11n, hasiera batean, amaituko dela iragarri duen arren, aipagarria da konfinamendua luzatu egin dela inguruko herrialdeetan.

Hala ere, gobernu-taldea nahiz udal-teknikariak dagoeneko ari dira alternatibak bilatzen, Otxomaioren datei eta formatuari dagokienez. Alarma egoera amaitu ondoren, Jai Batzordearekin eta beste gizarte eragileekin batera hartuko dira erabaki horiek.